

**upna**

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y DE LA  
EDUCACIÓN**

**GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**Graduado o Graduada en Maestro en Educación Primaria  
Lehen Hezkuntzako Irakasletzako Gradua**

**Gradu Bukaerako Lana**

**Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza Lehen  
Hezkuntzan: Nafarroan eta Suedian / Aprendizaje y  
enseñanza de las lenguas en la Educación Primaria: en  
Navarra y Suecia**

**Ikaslea: Jone De Andres Moso**

**Tutor/Tutorea: Pablo Sotés**

**Departamento/Saila: Osasun Zientzien saila**

**Campo/Arloa: Psikologia/Pedagogia**

**2023ko maiatza**



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua  
Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza Lehen  
Hezkuntzan/ Aprendizaje y enseñanza de los  
idiomas en la Educación Primaria**

Jone DE ANDRES MOSO

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y  
DE LA EDUCACIÓN

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA  
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

ii

---

**Ikaslea / Estudiante**

Jone De Andres Moso

**Izenburua / Título**

Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza Lehen Hezkuntzan: Nafarroan eta Suedian /  
Aprendizaje y enseñanza de los idiomas en la Educación Primaria: en Navarra y Suecia

**Gradu / Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**

Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales y  
la Educación

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Pablo Sotés Ruiz

**Saila / Departamento**

Osasun Zientzien saila / Departamento de las Ciencias de la Salud

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2022 / 2023

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberria / Primavera



## Laburpena

Lan honetan bi testuinguru linguistiko desberdin aztertuko dira: Suediakoa eta Nafarroakoa. Horrela, Nafarroan eta Suedian hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak aztertuko ditugu, eta Europar Batasunak hizkuntzen ikaskuntza ziurtatzeko herrialdeak koordinatzeko modua ere. Gainera, hizkuntza bakoitzaren errealitatea kontuan hartuta, hizkuntza batzuk indartu egiten direlako eta beste batzuk, argi eta garbi, gutxiengoa direlako, Hizkuntzen Ikaskuntzarako, Irakaskuntzarako eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa hartzen da abiapuntutzat. Bestalde, haurrak protagonista diren ikaskuntza-prozesu batean, ezinbestekoa da haien interesetara eta beharretara egokitzen diren metodologia desberdinak garatzearen garrantzia. Horregatik, Suediako nazioarteko ikastetxe batean aurrera eraman den proiektuan, Europako hainbat herrialdetan hain ohikoa den "Storyline" metodologia erabili izan da, istorio baten bidez ikaskuntza-prozesuari testuinguru eta zentzu bat ematen baitio. Horren bidez, nazioarteko hizkuntza baten ikaskuntza erakutsiko duen proiektua gauzatuko da, ikasleen ama-hizkuntzak bigarren hizkuntza baten garapenean duen eragiten kontuan hartuta.

Hitz klabeak: Hezkuntza eleanitza; Storyline; Nazioarteko hizkuntza; Ama-hizkuntza; Lehen Hezkuntza;

## Resumen

En este trabajo se van a analizar dos contextos lingüísticos diferentes, el Sueco y el Navarro. De ese modo, analizaremos el aprendizaje de los idiomas en Navarra y Suecia, y la manera en que la Unión Europea coordina los países para la enseñanza de estos. Además, teniendo en cuenta la realidad de cada lengua, ya que unos idiomas se potencian y otros son claramente minoritarios, se toma como punto de partida el Marco de Referencia Europeo para el aprendizaje, la enseñanza y la evaluación de lenguas. Por otro lado, en un proceso de aprendizaje donde los protagonistas son los niños, la importancia de desarrollar diferentes metodologías que se adapten a sus intereses y necesidades es imprescindible. Por ello, en el proyecto que he llevado a cabo en un colegio internacional de Suecia, he hecho uso de la metodología "*Storyline*", tan común en diversos países de Europa, ya que mediante una historia permite dar sentido al proceso de aprendizaje. Mediante ella se llevará a cabo el proyecto que mostrará el aprendizaje de una lengua extranjera teniendo en cuenta cómo afecta la lengua materna de los alumnos en el desarrollo de una segunda lengua.

Palabras claves: Educación multilingüe; Storyline; Lengua de uso internacional; Lengua materna; Educación Primaria.

## Abstract

In this thesis we are going to analyze two different linguistic contexts, Swedish and Navarre. In this way, we will analyze the learning process of languages in Navarra and Sweden, and the way The European Union coordinates its countries for the teaching process. In addition, taking into account the reality of each language, since some languages are promoted and others are clearly minority, the European Reference Framework for language learning, teaching and evaluation is taken as a starting point. On the other hand, in a learning process where the main characters are the children, the importance of developing different methodologies that adapt to their interests and needs is essential. For this reason,

in the project that has been carried out in an international school in Sweden, they made use of the "Storyline" methodology, so common in various European countries, since through a story it allows to give meaning to the learning process. Through it, the project will be carried out that will show the learning of an international language taking into account how the mother tongue of the students affects the development of a second language.

Key words: Multilingual education; Storyline; International language; Mother tongue; Primary Education.

AURKIBIDEA	
<b>SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA</b>	<b>8</b>
<b>1. MARKO TEORIKOA</b>	<b>9</b>
1.1. Hizkuntzen irakaspena Europan	9
1.2. Ama hizkuntzaren jabekuntza eta garapena	11
1.1.1. Ama hizkuntzak Bigarren hizkuntzaren garapenean duen eragina	12
1.3. Hezkuntza sistema eleanitza	13
1.3.1. Eleaniztasunaren kontzeptua	13
1.3.2. Hezkuntza eleanitzaren garrantzia	13
1.3.3. Irakaskuntza eleanitza Nafarroan	14
1.3.4. Irakaskuntza eleanitza Suedian	16
1.4. Hizkuntzen garapenaren alderdi teoriko eta praktikoaren garapenerako estrategiak	18
1.4.1. Hizkuntzaren kontzeptua	18
1.4.2. Hizkuntza jabetzeko metodologiak eta estrategiak	19
1.4.2.1. Metodoak	20
1.4.2.2. Estrategiak	21
1.5. Istorioen garrantzia ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan	28
1.5.1. Jolasa ikaskuntza prozesuan	29
<b>2. ATAL PRAKTIKOA</b>	<b>33</b>
2.1. Testuingurua eta justifikazioa	33
2.2. Lagina	35
2.3. Helburua	35
2.4. Storyline metodologia	35
2.5. Proiektua/proposamen didaktikoa	37
<b>3. EMAITZAK ETA ONDORIOAK</b>	<b>49</b>
<b>RESULTADOS Y CONCLUSIONES</b>	<b>50</b>
<b>ERREFERENTZIAK</b>	<b>53</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>56</b>

## SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan, hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntzari izugarritzko garrantzia ematen hasi zaio, hizkuntzalariek, soziologoez, psikologoez nahiz antropologoez aztertu duten gaia izanik.

Gainera, kontuan hartuta immigrazioaren gaia gero eta gai arruntagoa dela, eta Europako herrialde askoren ama hizkuntza gutxiengoa dela, hainbat hizkuntza ikastearen garrantzia eta balioa asko handitu da azken urteotan. Horrela, Europako herrialdeetako hezkuntza-ereduetan, baita mundukoetan ere, gero eta fenomeno ohikoagoa da hizkuntza anitzeko hezkuntza.

Horrela, Euskal Herrian, Estatu Espainoleko beste zenbait tokitan bezala eleaniztasuna indarrean dagoen gaia da. Ikastetxe gehienetan hiru hizkuntza irakasten baitira (euskara, ingelesa eta gaztelania). Honela, gaur egun, gaztelania eta euskararekin batera, gero eta gehiago dira ingelesa ere irakasten duten zentroak, euskara indartu, elebitasuna egonkortu eta ingelesa sustatzeko helburuarekin.

Bestetik, Suedian dagoen immigrazio egoera kontutan hartuz, ikastetxe gehienetan ikasle bakoitzaren ama hizkuntza lantzeko ahaleginak egiten ari dira, ikasle hauen jatorrizko herrialdeei duten garrantzia emanez eta inklusioari bultzakada bat emanez. Bestetik, herrialdeko ama-hizkuntzaren garapena derrigorrezkoa da Suediako eskola guztietan, baina hizkuntzaren egoera kontutan hartuz, mundu mailan pisutsuagoak diren hizkuntzen ikaskuntza bultzatzen da eskoletan (frantsesa, ingelesa, gaztelania eta alemaniera), hezkuntza eleanitzari apustu eginez.

*Nik uste eleaniztasuna beharrezkoa dela. Baina gure egoera soziala ez da eleanitza eta eleaniztunak sortzeak arazoak dakartza hizkuntza gutxituarentzat. Psikologia aldetik frogatua dago eleaniztasuna posible dela, beraz, psikologikoki hainbat hizkuntza ikas ditzakegu inongo arazorik gabe. Arazoa, soziologian topatzen dugu eta psikologiaren eta soziologiaren arteko lotura beharko litzateke (Azurmendi, 2008:26).*

Gaur egun hizkuntza desberdinak ikasteak duen garrantzia dela eta, ezinbesteko baldintza da haurren eta eguneko gizartearen premietara egokitzen den ikaskuntza-prozesua erraztea, haurrek motibatuta egon eta hizkuntza garatzeko interesa izan dezaten. Horrela, ikasleek ikasgelan ikasitako edukiari testuinguru bat eta esanahi bat emateak ahalbidetzen duten metodologiaren erabilpena sustatzeari ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei zentzua emango die. Horrela, Europako irakasleek geroz eta gehiago praktikan jartzen ari dituzte horrelako metodologia berritzaileak ikasleen ikaskuntza prozesua ziurtatzeko xedearekin.

*Storyline* metodologia erabiliz, haurrei testuinguru hori eman dakieke, historia bat erabiliz eta jarduera ludikoak erabiliz, ikasleen interesa eta motibazioa areagotuz. Metodologia aktibo oso malgua da, eta istorioaren garapenak hainbat eduki modu bizigarriagoan eskuratzeko aukera ematen du.

## 1. MARKO TEORIKOA

Aurkibidean ikusi daitekeen moduan, marko teorikoan Lehen Hezkuntzan hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzaren inguruan bost puntu desberdin jorratuko ditut. Hasteko, lehenengo puntuan Europan gaur egun hizkuntzen irakaspeneren inguruan dagoen egoerari buruz eta herrialdeek haien artean hizkuntzen irakaskuntzaren inguruan jarraitu beharreko adostasunaren inguruan arituko naiz. Bigarren puntuan, Lehen Hezkuntzan, ikasleen ama hizkuntzaren garapena eta irakaskuntza nola ematen den azalduko dut, eta baita nola ama hizkuntzak eragiten duen atzerriko hizkuntzen garapeneren inguruan ere. Jarraitzeko, hirugarren eta puntuan hezkuntza sistema eleanitzaren inguruan hitz egingo dut, eta Nafarroako eta Suediako hezkuntza sistema eleanitzak aztertuko ditut. Bestetik, laugarren puntuan, hizkuntzaren kontzeptuari buruz arituko naiz, eta hizkuntzaren funtzio bakoitza garatzeko edo lantzeko estrategiak azalduko ditut. Azkenik, bostgarren puntuan, istorioak eta jolasak haurren ikaskuntza prozesuan hartzen duten rola eta hauek duten garrantzia azpimarratuko dut.

### 1.1. Hizkuntzen irakaspenera Europan

Europako herrialde guztietan ikasleek haien gaitasunen garapen egoki bat jasotzen dute, gaitasun eleanitzak eta kulturartekoak barne izaten dituenak. Aipatu bezala, Europako eskoletan, kalitate handiko hezkuntza kultura anitza eta eleanitza eskaintzen da, Europako herrialde guztietako lehenengo hizkuntzak mundu mailan duen pisuaren eraginez, esaterako, Suediako ikasleek Suedieraz ikasten dute, baina Suediatik kanpo Suedieraz ez du inolako pisurik; hortaz, mundu mailan pisutsuak edo indartsuagoak diren beste hizkuntzen irakaspenera bultzatzen da, adibidez, ingelesarena. Horrela, Europa mailan, eskoletan dagoen eginkizun pisutsuenetako bat ikasleek identitate pluralista garatzea eta testuinguru linguistiko eta kultural batean bizitzeko prestatzea da. Era honetan, ikasleek bi hizkuntza desberdin baino gehiagotan hizkuntza gaitasuna eta alfabetatzea lortzea edo garatzea espero da: ikaslearen herrialdeko hizkuntza eta mundu mailan pisutsuak diren beste hizkuntza batzuetan.

Beraz, kalitatezko hezkuntza multikulturala eta eleanitza ziurtatzeko helburuarekin, Europar Batasunak Europako Erreferentzi Markoa jarraitzen du.

Honek, Europa osorako hizkuntza egitarauak, kurrikulu-orientazioak, azterketak, testu-liburuak etab. prestatzeko euskarriak bateratzen ditu. Horrela, herrialde desberdinetan hizkuntza bat ikasten ari diren ikasleek, hizkuntza hori garatzeko eta komunikazio-tresnatzat erabiltzeko beharrezkoak diren alderdiak edo esparruak deskribatzen ditu Markoak, eta zehazki ikasleek ikasi eta eskuratu behar dituzten ezagutzak eta trebetasunak zehazten ditu. Bestetik, deskribapen horrek hizkuntzaren testuinguru kulturala kontutan hartzen du. Beraz, Erreferentzia Markoak bere egitarauak beteko baditu gardena, koherentea eta integratzailea izan behar da. Hala ere, irekia, dinamikoa eta ez dogmatikoa izan

nahi du. Horregatik, ez du inoren alde egingo gaur egungo hizkuntza bereganatzeko prozesuaren izaerari eta prozesu horrek hizkuntzen ikaskuntzarekin duen loturari buruzko eztabaida teorikoetan, eta ez da hartu behar hizkuntzen irakaskuntzaren ikuspegi jakin bati atxikitako lantzat ere, ez baitu ikuspegi jakin bat hobesten besteak alde batera utzita (Europako Erreferentzia Marko Bateratua).

Europako Erreferentzi Markoaren helburu nagusia Europako hezkuntza-sistemek hizkuntza modernoan esparruan lan egiten duten profesionalen arteko komunikazioari sortzen dizkioten oztopoak ezabatzea da. Modu honetan, hizkuntzen irakaskuntzarekin erlazionatuak dauden adituei, hots, irakasleak, irakasleen hezitzaileak, aztertzaileak, etab. baliabide desberdinak eskaintzen dizkie bakoitzak bere esparruan aurrera eramaten dituen ekintzen inguruan hausnartzeko, ikasleek eguneroko bizitzan, hizkuntzen erabilpenari dagokionez, izango dituzten beharrak asetzeko xedearekin.

Horrela, bestalde, kultura-jatorri desberdineko europarren arteko komunikazioa hobetzen da. Izan ere, komunikazioa hobetzeak Europan zehar mugitzea errazten du, eta lotura zuzenagoa ekarriko du, era berean, hobeto ulertu ahal izateko. Horrela, irakasteko eta ikasteko metodoak ere sustatu nahi dira; Metodo horiei esker, ikasle gazte eta helduek independentziaz pentsatu eta jardun dezakete, eta, aldi berean, beste pertsona batzuk baino arduratsuagoak eta parte-hartzaileagoak izateko beharrezkoak diren jarrerak eta ezagutzak izan ditzakete.

Bestetik, Markoa, hizkuntzen irakaskuntzan komunikazio gaitasuna garatzeko heburuarekin bultzatzen da. Hortaz, hizkuntzen erabilerak -ikaskuntza ere barne hartzen du-, gaitasun orokor zein komunikazio-gaitasun batzuk garatzen dituzten pertsonen jarduerak hartzen ditu bere baitan. Horrela, pertsonak, hizkuntz jarduerak gauzatzeko, testuinguru, muga eta baldintza desberdinetan erabiltzen dituzte eskuratu dituzten gaitasunak. Jarduera horiek gauzatzeko prozesu batzuk abiarazi behar dituzte, arlo espezifikoetan gai jakin batzuei buruzko testuak ekoizteko eta jasotzeko, eta gauzatu beharreko atazak burutzeko estrategia desberdinak erabili beharko dituzte.

Laburbilduz, hizkuntzen irakaskuntza bermatzeko burutzen diren jarduera edo prozesu hauek irakaskuntzan diharduten pertsonak aurrera eramaten dituzte. Beraz, hauen xede nagusia prozedura praktikoen azalpenik argiena eta gardenena bultzatzea da. Horretarako, Europako Erreferentzia Markoak zehazten dituen argibideak, parametroak eta irizpideak jarraitu behar dituzte, harraminta hauei esker baliabide gehiago izango dituzte hizkuntzen irakaskuntza sustatzeko modu eraikitzaile batetan; izan ere beharrezkoa da adostasuna egotea ikasleei hizkuntza bat irakasterakoan helarazi behar zaienaren inguruan, komunikazio-gaitasuna bermatu dezaten.

## **1.2. Ama hizkuntzaren jabekuntza eta garapena**

Ama-hizkuntza (H1) pertsona batek bere bizitzan ikasten duen lehen hizkuntza da. Jatorrizko hizkuntza edo jaioterri-hizkuntza ere deitzen zaio. Pertsona batek bizitzako lehen urteetan ikasten

dituen hizkuntzak dira (pertsoneleki kasuan), eta, normalean, pentsamendu- eta komunikazio-tresna bihurtzen ohi da.

Ama hizkuntza bat eskuratzeko 4 etapetik igarotzea dakar: ezjakintasuna, ezagutza-mekanizazioa, ezagutza gainorokortua eta ezagutza konbentzionalizatua (Menn, 1989). Trebetasun sozial, motor, kognitibo eta linguistikoek etapa batetik bestera igarotzeko aukera ematen diote haurrari. Prozesu horretan, haurrak funtsezko estrategia batzuk aplikatzen ditu, hala nola arreta selektiboa, sinbolizazioa, orokortzea, errepikapena, perifrasiaren bidezko kondizioa, etab. (Silva-Corvalán, 2003).


H1 bat jabetzeari buruz gehien eztabaidatu den alderdia, zalantzarik gabe, genetikoki transmititutako unibertsal linguistikoak dauden ala ez izan da, hizkuntza jakin baten edo gehiagoren eraginpean jartze hutsak, haurrak hizkuntza horien arauak erraz eta azkar berenganatzeko aukera emateak.

Mundu-mailako ikasteko estrategia horiek unibertsal kognitiboak baino gehiago dira: hizkuntza bakoitzaren modu jakin batzuen arabera mintzamena hautemateko eta sistema formalak eraikitzeke aurrejarrerak (Slobin, 1982). Slobinek Printzipio Operazional batzuetan biltzen ditu aurrejedapen horiek, eta horiek dira haurrek ama-hizkuntza eskuratzeko erabiltzen dituzten estrategiak. Printzipio operazional horiek hizkuntza baten formen eta esanahien arteko korrespondentziak aurkitzeko eta eskuratzeko prozesuan erregela eta elementu linguistikoak errepikatzearen garrantzia azpimarratzen dute. Hau da, hizkuntza bat eskuratzeko arauak murriztean eta sinplifikatzean oinarritzen dira estrategia horiek. Ikuspuntu honen inguruan. Baldintza kognitiboek eta sozialek zeregin garrantzitsua dute; izan ere, eskuratzeko-prozesuari buruz proposatutako azalpenek eta barnekotzat edo inter-linguistikotzat hartzen diren garapen-etapek modu orokorrean txertatzen dute haurrak jasotzen duen hizkuntza-input mota (Menn 1989).

Carmen Silva-Corvalan (2003)-en iritziz, Karmiloff Smith (1994)-ek dioen arabera, hizkuntza ikasteak menderatze espezifikoko prozesuak nahiz menderatze orokorrekoak eskatzen ditu. Haurrek egiten dituzte lehen ekoizpenak urte bat eta zortzi hilabete betetzerakoan izaten dira, haien inguruan duten hizkuntzan. Hiru urterekin, hainbat egitura sintaktiko erabiltzeaz (adierazpenezkoak, aginduzkoak, galdetzaileak, etab.), eta perpaus sinpleez gain, menderakuntza-mota desberdinak sortzeko eta ulertzeko gai dira. Lau eta bost urte bitartean, gaztelaniaren kasuan bereziki, aditz irregularrak eta izenordainak erabiltzeko eta ulertzeko gai izaten dira. Bestetik, abstrakzio maila eskuratzen hasten dira eta ia akatsik gabe erabiltzen hasten dira. Sei urterekin, esaldi pasiboak ondo erabiltzen hasten dira. Beste era batera esanda, ama-hizkuntzaren gramatika edo sintaxia sei urte betetzean bukatutzat jo daiteke. Egia esan, haurrek idazten ikasten dutenean, hizkuntzaren gramatika-egiturak menderatzen dituzte.

Haurrek, inguruko pertsonak entzunez eta imitatuz, hizkuntzaren arau eta forma horiek guztiak bereganatzen badituzte ere, garrantzitsua da eskolan hizkuntza horren gramatika irakastea, haurrek erabiltzen duten hizkuntzaren antolaketa edo funtzionamendua modu inkontzientean erabiltzen dutelako, hau da, honen zergatia edo arauak ulertu gabe. Arau formalak kontzientzia metalinguistikoa garatzea ahalbidetzen du, eta jakite orokorreko ezagutza bihurtzen da.

### 1. irudia *Hizkuntzaren garapena*



Hizkuntzaren garapenaren diagrama eskematikoa. International Montessori Institute Barcelona-tik aterata, Maria Montessori (2023). <https://montessorispace.com/blog/aprendizaje-simultaneo-de-idiomas/>

#### 1.1.1. *Ama hizkuntzak Bigarren hizkuntzaren garapenean duen eragina*

Carmen Silva-Corbalanen arabera (2003), haurrek ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza bat ikasten dute 3 patroiri jarraituz: lehenengoa, isilaldia izenekoa (H2aren ezaugarriak erabiltzean zehaztasun-hurrenkera), bigarrena Mintzamenaren Emergentziarena (hizkuntzaren irisgarritasunean jardunez komunikatzea ahalbidetzen duten segmentuak ekoiztea du ezaugarri) eta hirugarrena Gramatikaren Ikaskuntzarena.

Hizkuntzaren garapen sistematikoa hizkuntza-arau abstraktuen sistema bat eraikitzean oinarritzen da, H2 bat ulertu eta ekoiztearen atzean dagoena eta H1 sistemako elementuak hartzen dituena; Selinkerrek (1972) *Interlengua (IL)* bezala izendatu zuen sistema hori.

H1-ak H2 eskuratzea errazten du (Transferentzia Positiboa bezala ezagutzen den prozesua, kognitibismotik datorrena). Nolanahi ere, H1 eta H2ren arteko antzekotasunaren arabera, H1aren transferentzia saihesta daiteke, H1an antzeko formarik ez dagoelako. Hala ere, H1 lagungarria izan



daiteke forma jakin batzuk eskuratzeko, H1arekin antzekotasun morfologikoa/fonologikoa duelako. Selinkerren arabera, ikasleek H1era jotzen dute *Interlengua*-ren hipotesiak eratzeko prozesuan (“input from the inside”), eta *transferentzia interferentzia* ez dela ondorioztatzen da, prozesu kognitibo bat baizik. Corder autorearen arabera (1981), ikasleek H1 erabiltzen dute laguntza eman diezaieketela uste dutenean edo *transferentzia* posible izateko behar besteko gaitasuna dutenean H2ren ezarpenean. Horrela, ikerketak erakutsi izan du ikasleen ama hizkuntzaren eraginak beste hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza prozesua erraztu eta hobetu egiten duela haren.

### **1.3. Hezkuntza sistema eleanitza**

#### **1.3.1. Eleaniztasunaren kontzeptua**

Azken urteotan, eleaniztasunaren kontzeptua gero eta indar handiago hartuz joan da Europako Kontseiluak hizkuntzen ikaskuntzari buruz duen ikuspegian. Baina eleaniztasunak ez du hizkuntz aniztasun soila esan nahi. Hizkuntz aniztasunak bi hizkuntza baino gehiago ezagutzea, hau da, hizkuntzak modu txandakatuan erabiltzeko gai izatearen gaitasuna adierazten duen kontzeptua da. Ikastetxe batean edo hezkuntza-sistema jakin batean eskaintzen diren hizkuntzak dibertsifikatze hutsarekin lor daiteke hori, ikasleek atzerriko hizkuntza bat baino gehiago ikas dezaten bultzatuz.

Mackey-k (1970) adierazi zuen bezala, “Bilingualism is not a phenomenon of language; it is a characteristic of its use.” Hau da, elebitasuna ez da hizkuntzaren fenomeno bat, honen erabileraren ezaugarri bat baizik. Hortaz, aipatu den bezala, pertsona batek bi hizkuntza baino gehiagoren erabilera eta hauen ezagutza maila modu berean menderatzen duenean, orduan izango da gai egoeraren arabera modu arin batez hizkuntza horietako bat erabiltzeko eta komunikatzeko.

Hizkuntza bat bere baitan ikasteko, hizkuntza gaitasuna eta komunikazio gaitasunak eskuratu behar dira, ez baita aski hizkuntzaren gramatika, lexikoa eta hiztegia eskuratzearekin; azken hauekin, hizkuntza baten marko kulturala eta soziala ulertuko dugu, baina ez baitugu hizkuntza bere osotasunean eskuratuko.

#### **1.3.2. Hezkuntza eleanitzaren garrantzia**

Gaur egun, mundu globalizatu batean bizi gara, eta horrek gure bizitzako arlo guztiei eragiten die, hala nola hezkuntzari. Horrela, munduko herrialde askotan gero eta immigrazio gehiago dago, eta horrek berekin dakar herrialde bereko jende, kultura eta hizkuntza desberdinak beste batzuekin bizi behar izatea. Horregatik, beharrezkoa da herrialde bakoitzeko herritarrek eta nagusiek multikulturalismo hori babestea, globalizazioari dagokionez herrialdea hobetzen duten batera. Hori lortzeko modu erraz eta eraginkor bat umeentzako hezkuntza elebiduna da (Alexandria MacDonald, 2011).

Modu horretan hezkuntza iradokizun bat baino gehiago da, baina benetan beharrezkoa da haur jakitunak hazteko, kulturalki heziak eta etorkizunerako prestatuak. Gaurko munduan, hezkuntza eleanitzaren garrantzia eztabaida ezina da maila interpersonalean, hezitzailean eta globalean. Horrela, egungo mugikortasun soziala (immigrazioa, errefuxiatuak, langileak, ikasleak, soldaduak, eta abar) etengabe handitzen ari direnez, baita Europar Batasunean ere, eta, ingelesa gaur egungo nazioarteko hizkuntza nagusia denez, hezkuntza eleanitza baliagarria izan daiteke bai estatu bat/hizkuntza bat eredu aldatzen laguntzeko, eta baita *'lingua franca'* moduan erabiltzeko, gutxiengo hizkuntzak ez oztopatuz (Azurmendi, 2010).


Bestetik, lehen aipatu den bezala, gutxiengo hizkuntzei dagozkien artean normalizazioaren beharrezkin lotura duten arrazoi pisutsuak daude ere, herrialde batzuetako hizkuntzak mundu mailan indartsuak ez direlako, eta herrialde hauetako haurren mugak izugarriak izango ziren eleaniztasunagatik ez balitz. Beraz, arrazoi hauengatik hezkuntza-eleanitzaren garrantzia gero eta gehiago azpimarratzen da.

### **1.3.3. Irakaskuntza eleanitza Nafarroan**

Hizkuntzei dagokionez, gaztelania eta euskara dira Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizialak, hala eta guztiz ere, bi hizkuntza hauen erabileraren presentzia eta ezagutza guztiz desberdina da.

Pertsona bakoitzaren ama hizkuntza zehazten duten hainbat faktore daude. Nafarroan, faktore garrantzitsu bat eremu linguistikoa da, eta hizkuntza bakoitzak autonomia-erkidegoko leku bakoitzean duen eragina. Nafarroako Estatistika Erakundearen (Nastat) 2018 urteko datuak begiratuta, Euskararen Foru Legean ezarritako hizkuntza-zonakatzearen arabera, eremu euskaldunean bizi diren biztanle gehienek euskara dute lehen hizkuntzatzat: % 53,4k ( % 42,2k euskara bakarrik eta % 11,2k euskara eta gaztelania). Eremu mistoan, biztanleen % 6,2k euskara dute lehen hizkuntzatzat (% 2,9k euskara bakarrik eta % 3,3k gaztelania), eta eremu ez-euskaldunean, % 1,2k baino ez dute euskara erabiltzen.

**2. irudia Lehenengo hizkuntza eremu linguistikoaren arabera**




Fuente: ESyCV, 2018.

Lehenengo hizkuntza eremu linguistikoaren arabera. Nafarroako Gobernua, Euskarabide-tik aterata, Nafarroako Gobernua (2020). [https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/estudio\\_soiolinguistico\\_2018.pdf](https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/estudio_soiolinguistico_2018.pdf)

Bestetik, Nafarroako euskaldunek, euskara eta gazteleraz gain, ingelesa eta/edo frantsesa ere badakite batezbestekoa baino ehuneko handiagoan. Izan ere, atzerriko bi hizkuntza horien ezagutza euskal hiztunen artean, euskaldunak ez direnen artean baino handiagoa da. Euskaraz ez dakiten 16 urtetik gorako nafartarrek, % 22,8k dakite ingelesa, frantsesa edo biak eta euskal hiztunen artean, berriz, ehuneko hori % 35,9koa da.

**3. irudia Ingelesaren eta/edo frantsesaren ezagutza biztanle euskaldunen eta ez-euskaldunen artean**



Lehenengo hizkuntza eremu linguistikoaren arabera. Nafarroako Gobernua, Euskarabide-tik aterata, Nafarroako Gobernua (2020). [https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/estudio\\_soiolinguistico\\_2018.pdf](https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/estudio_soiolinguistico_2018.pdf)

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, Nafarroako hizkuntza eremu edo zonaldea zeintzuk ziren definitu zituen irizpide soziolinguistikoen arabera. Ondoren 9/2017 Foru Legearen bitartez Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk eguneratu izan ziren. Gaur egun hiru eremu edo zonalde desberdinetan banatzen da eskualdea: eremu euskalduna edo gaztelaniaz zona vascófona deritzona, eremu mistoa eta azkenik eremu ez euskalduna edo gaztelaniaz zona no vascófona. Euskararen Foru Legeak edo gaztelaniaz Ley Foral del Vasconce (1986) legeak, Nafarroako Foru Komunitatea hiru zonaldeetan banatzen du, euskararen erabilera eta ezagutza kontuan izanda. Nafarroan lau hezkuntza eredu linguistiko eskaintzen dira, horietatik hiru A, B eta D eleanitzak dira, euskara, gaztelania eta ingelesa edo frantsesa hizkuntzak presentzia dute. Orain aipatu den Foru Legearen araberrako eremuak kontutan izanda, eremu euskaldunetan A, B eta D ereduak baimentzen dira. Eremu mistoan berriz, A, B, D eta G ereduak.

- A ereduak: Eredu honetan irakaskuntza guztia gaztelaniaz ematen da eta euskara beste ikasgai bat bezala balitz lantzen da (etapa guztietan). Ikasleen ama hizkuntza gaztelania da.
- B ereduak: Irakaskuntza euskaraz ematen da eta gaztelania ikasgai bat balitz bezala lantzen da (hezkuntza etaparen arabera gaztelania ikasgai bat edo gehiago irakasteko erabiliko da). Beraz ikasgaiak irakasteko bi hizkuntzak erabiltzen dira.
- D ereduak: Eredu honetan irakaskuntza guztia euskaraz ematen da eta gaztelania soilik ikasgai bezala lantzen da, etapa guztietan zehar. Kasu gehienetan, D ereduan matrikulaturik dauden ikasleen ama hizkuntza euskara da.
- G ereduak: Eredu honetan ez dago euskararen inolako presentziarik. Irakasgaiak guztiak gaztelaniaz ematen dira.

Nafarroak atzerriko hizkuntza irakasteari eskola-ordu gehien ematen dituen eremua da Espainiar estatuari dagokionez. Lehen Hezkuntzako etapan asteko lau edo bost ordu izanda ingelesaren irakaskuntzarako.

#### **1.3.4. Irakaskuntza eleanitza Suedian**

Lehen aipatu dudana bezala, migrazioaren fenomenoak biztanleriaren egitura aldatu du, eta gero eta testuinguru multikulturalagoa eragin du, hau da, komunitate batean elkarrekin bizi diren hainbat kultura ugari dira (Casal, 2013). Kulturartekotasun terminoa funtsezko alderdia da desberdintasunen ginetik giza eskubideen eta berdintasunaren unibertsalizazioa defendatzeko (Planas et al., 2010). Horrek hezkuntza-neurriak sortu ditu kulturarteko hezkuntzaren bidez, desberdintasunak murriztu eta kulturen aniztasunaz elikatzen den biztanleria lortzeko.

Suedian eragin politiko handia du kultura-aniztasunak. Suediako gobernuak kultura-aintzatespenean eta aniztasunean oinarritutako egitasmoak diseinatzen ditu aberastasun-iturri

gisa, eta ikastetxeak ikasle atzerritarrek integratzen ahalegintzen dira, eskola-adinean dauden ikasle guztien % 15 baitira (Piña, s.f). Suediako politikak, gizarte kulturantzunari dagokionez, aukerak islatzen eta eskaintzen dizkie gehiengoaz bestelako kultura bat garatu eta mantendu nahi duten guztiei.

Herrialde honek tradizio luzea du etorkinen hartzailerazteko, eta hezkuntza-ekimenak ditu ikasle atzerritarrentzat 1970az geroztik. Aipagarrienetako bat jatorrizko hizkuntza mantentzea eta garatzea da, haurren aberastasun eta garapen pertsonalari, eskola-errendimendu hobeari eta suediera hobeto ikasteari laguntzen baitio, eta, era honetan, integrazio-prozesua areagotzen du (Piña, d,g.).

Etorkinentzat, hezkuntza da sarbide-punturik azkarrena Suediako edota Europako gizartearen gizarteratzea lortzeko, hau da, ez bakarrik gizarteratzea lortzeko gizarte berrira egokituz, baizik eta biztanleria aberasteko aukera gisa, erabateko eta baldintzarik gabeko gizarteratze gisa.

Suediako gizarteratze-prozesuaz hitz egiteak eskolak erabiltzen dituen baliabideak aztertzea dakar. Kultura arteko eskola bat, desberdintasun-kontzeptuak barne hartzen dituen politika bat duena, baina, era berean, hainbat taldetako kide izatearen sentimendua emateko baldintzak sortzen dituena. Herritarren balio unibertsalak erabiltzeak eta giza eskubideen gaineko kontzientzia sortzeak buru inklusiboak sortzen ditu. Kulturarteko, herritarren eta giza eskubideen hezkuntza ikasle atzerritarren integrazioaren parte da, baina baita inklusioaren parte ere. Harrera-herrialdeko hizkuntza ikasteak ez ezik, kultura ikasteak ere laguntzen du prozesu horretan, muturreko aniztasuneko gizarte batean herritar aktibo gisa trebetasunak eskuratzeko.

Suediako Lehen Hezkuntzako kurrikulumean (Lgr11) helburu argiak aurki ditzazkegu, beste pertsona batzuen ulermena eta enpatia sentitzeko gaitasuna sustatzeko. Gizabanakoaren ongizatearekiko eta garapenarekiko kezkek eskola-jarduera osoa hartzen du. Suediako kurrikulumak dioen bezala, hots, Lgr11-k dioen bezala, Inor ez da diskriminatu behar generoagatik, jatorri etnikoagatik, erlijioagatik edo beste sinesmen-sistema batengatik, edo haren adierazpenagatik, sexu-joeragatik, adinagatik edo desgaitasun funtzionalagatik. Joera horiek modu aktiboan borrokatzen dira ezagutzaren, eztabaida irekiaren eta neurri aktiboaren bidez. Bakoitzaren berezko kultura-jatorriak ezagutzeak nortasun segurtasuna ematen du, eta hori garatzea garrantzitsua da, baita besteen balioak eta baldintzak ulertzeko eta haiekin enpatizatze gaitasuna ere. Eskola suediarra topaleku sozial eta kulturala da, gaitasun hori indartzeko aukera eta erantzukizuna duena.

Horrela, Suedian hizkuntza anitzeko oinarritzko hiru hezkuntza mota daude:

1. Hezkuntza modurik arruntena suedierazko irakaskuntza osoa egiten duena da, ama-hizkuntzarekin lotutako trebetasunetara zuzendutako zati bat izan ezik. 1973an, Suediako Hezkuntza Bulego Nazionalak ezarri zuen ama-hizkuntzaren irakaskuntza astean bi ordukoa izango zela. Ikasle guztiek bermatuta dute irakaskuntza hori, eskola aurreko mailatik hasi eta goi-mailako eskolaraino. Borondatezkoa da, eta irakasleak ikasleen talde etniko berekoak dira.

2. Gainera, "etxeko hizkuntzaren eskolak" deituriko ama-hizkuntzako programak daude, non ikasle guztiak talde etnikoak diren eta non irakaskuntza gehiena ikasleen ama-hizkuntzan ematen den. Programa horiek hizkuntzen sekuentzian aldatzen dira; adibidez, hasierako irakurketa eta idazketa H1 eta H2 hizkuntzetan irakats daitezke aldi berean.
3. Komunitateak eskaintzen dituen programa horiez gain, badira zenbait ikastetxe hiri handietan hornituak, gehienak Estokolmon, Suediako hiriburua eta herrialdean biztanle gehien dituen hiria baita. Ikastetxe horiek hizkuntza anitzeko hezkuntza eskaintzen dute, eskola aurreko mailatik hasi eta goi-mailako eskolaraino. Badira, adibidez, Alemaniarako ikastetxe bat, Ingeleseko ikastetxe bat, Frantseseko ikastetxe bat eta Estoniar bat, beren irakaskuntza maila altuagatik ezagunak. Ikastetxe horietan ikasten duten ikasleek funtsezko eskakizun asko dituzte "hainbat hizkuntza modu paraleloan menderatzea" lortzeko, batez ere beren ama-hizkuntza eta herrialdean gehien hitz egiten den hizkuntza, suediera.

#### **1.4. Hizkuntzen garapenaren alderdi teoriko eta praktikoaren garapenerako estrategiak**

##### **1.4.1. Hizkuntzaren kontzeptua**

Hizkuntzaren azterketa kontuan hartzea gero eta garrantzi handiagoa du adin txikietan, baina, batez ere, oinarrizko beste prozesu psikologiko batzuen ere (oroimena, arrazoiketa, pentsamendua). Bere azterketak helburu bat du berez, tresna bat izateaz gain, Haur Hezkuntzako etapan garapen kognitiborako motorra baita. Psikologia giza portaera aztertzen duen zientzia da, eta baita prozesu mentalena ere, oinarrizko prozesu psikologikoak ere deitzen ditugunak (sentsazioa, pertzepzioa, ikaskuntza, baina baita arrazoiketa eta, jakina, hizkuntza). Garapenaren psikologiaz aritzen garenean, ikasketaz ari gara, psikologiaren barruan, portaera eta prozesuen aurrerapenen inguruan ari gara. Beraz, Hizkuntzaren garapenaz ari garenean, pertsona baten bizitzan zehar izan duen hizkuntza-bilakaerari buruz ari gara.

Owens (2006)-ek dioen bezala, "entendemos por lenguaje, en sentido restringido, el código o combinación de códigos compartidos por una serie de personas, que es arbitrario y que utilizamos para representar conocimientos, ideas y pensamientos, y que se vale de símbolos gobernados por reglas".

Mintzamenetik bereizten dugu, hau da, ahozko adierazpenetik (edo idazketatik, hizkuntza idatziaren kasuan), eta esanahiak transmititzeko erabiltzen dugu. Horrela, komunikazio mezuak trukatzeko prozesua dela esaten da (ahozko, keinuzko edo idatzizko edozein metodorekin). Hona hemen beste aditu batzuk aipatutako hizkera terminoaren ezaugarriak:

Laheyrentzat (1988) hizkuntza es el «conocimiento de un código que permite representar ideas acerca del mundo por medio de un sistema convencional de señales arbitrarias de comunicación». Bestetik, Owens-ek (2003) esaten duen bezala, "es un código compartido socialmente o sistema

convencional para la representación de conceptos mediante el uso de símbolos arbitrarios y reglas que gobiernan la combinación de estos símbolos”.

Beraz, esan dezakegu hizkuntza sistema konplexua dela, eta barne-antolaketa formala duten unitatez osatua dagoela. Gainera, ingurune sozialarekiko harreman- eta ekintza-modu bereziak ahalbidetzen ditu, jokabide-moduetan gauzatuak.

Jaiotzetik aurrera, garapen kognitiboa modu ez-linealean gertatzen da, gainerako dimentsio ebolutiboak bezala (fisikoa, morala, soziala, etab.), eta hizkuntza “jauzika” ere ematen da alderdi guztietan (forma, edukia eta erabilera). Adibide gisa, garapen semantikoaren etapa dugu, ikusiko dugun bezala, adituek “hiztegiaren leherketa” deritzotena. Adingabeen hizkuntzaren ikaskuntzarekin eta bilakaerarekin batera doazen helduen ikuspegitik, lehen urteetako komunikazioak hitzik gabeko osagai handia duela, eta hori haurra gehien motibatzen eta artatzen duen alderdia garrantzitsua dela aipatu behar da. Aitzitik, heldu askok arreta handiagoa jartzen diote edukiari, hurrekin duten komunikazio-harremana pobretuz.

Beraz, hizkuntza ez da soilik hitzak eta perpausak osatzeko sinboloen konbinazio bat, baizik eta informazioa, sentimenduak eta emozioak adierazten dituzten pertsonen arteko elkarreraginak errazten dituen tresna bat. Gainera, hizkuntza gure pentsamenduak planifikatzeko eta antolatzekeo tresna da, ekintzari begira.

Hizkuntzaren kontzepzio horrek ikaskuntzan ondorioak ditu, ez baita mugatzen fonema, hitz, esaldi eta testu gisako sinboloak eta kodeak eskuratzea; hizkuntzaren egitura eta testuingurua eta hauen alderdiak funtsezkoak dira eta. Testuinguru jakin batean, ezarritako arauen bidez, helburu eta gaitasun pertsonalak, harremanetakoak eta sozialak eskuratzea da helburua, harreman-testuinguru jakin batetik abiatuta.

#### **1.4.2. Hizkuntza jabetzeko metodologiak eta estrategiak**

Egoera fisiko edo mentalen bat tartean sartu ezean, denok hitz egiten eta ulertzen dugu ondo hizkuntza bat gutxienez. Gure gurasoengandik eta gure ingurukoengandik lortutako hizkuntza da hori. Lehenengo hizkuntza hori garatzeko prozesua, lehen aipatu den bezala, berezkoa da, hau da, hizkuntza horren eraginpean egoteagatik gertatutako prozesua da. Momento orotan hizkuntza hori entzuten dugu, eta hau erabiltzeko aukera asko izaten ditugu gure bizitzako lehenengo urteetatik aurrera.

Stephen Krashen hizkuntzalariak iradoki zuen pertsonak hizkuntza bereganatzen dutela informazio ulergarria jasotzen badute. Horrek esan nahi du beren mailatik gorako hizkuntza baten eraginpean daudela, baina gutxi gorabehera ulertzen dutela. Halaber, Krashenek iradoki zuen kontzienteki ikasten dugun hizkuntza eta *Comprehensible input*-aren (ikasleak atzerriko hizkuntza bat

eskura dezake, baldin eta egungo gaitasun-maila baino hizkuntza-elementu handiagoak dituen hizkuntza-emaria) bidez eskuratzen duguna desberdinak direla.

Bestetik, garrantzitsua da kontuan hartzea hizkuntzen garapenean eragina duten faktoreak askotarikoak direla, hala nola kanpoko faktoreak, irakaskuntza, gurasoen ekintza, ingurunea ahalik eta bizigarriena izateko moduan arautu eta antolatzearen garrantzia, etab., edo ikasleen barne-faktoreetan, hala nola adimenaren garapena, motibazioa eta heldutasun pertsonala hezkuntza-zeregin guztiei aurre egiteko orduan, ikaskuntza eta hizkuntza-gaitasunaren garapena barne.

Hizkuntza ikasteko metodo perfektua aurkitzeko ahalegin asko egin diren arren, inork ez du oraindik "onena" aurkitu. Alde batetik, ikasle guztiek era desberdin batera ikasten dutelako, eta, bestetik, irakaskuntza metodoak gizarteak aldatu ahala aldatzen direlako. Hala ere, metodo batzuk eztabaidatzea merezi dute, asko erabiltzen direlako, arrakasta asko dutelako, eta oraindik ere, eragina dutelako irakaskuntzako praktika modernoan.

#### **1.4.2.1. Metodoak**

##### **1) Gramatika-itzulpena**

Gramatika-itzulpena hizkuntzak ikasteko modurik ohikoena izan da orain arte. Ikasleek esaldien gramatika xede-hizkuntzan ikasten dute (ikasi nahi zuten hizkuntzan). Ondoren, bere hizkuntzara itzultzen dute edo alderantziz.

Gramatika-itzulpenak duen alde negatiboa ikasleek esaldiak itzultzen dituztela da, hitz egiten ikasi beharrean, eta era honetan, komunikazio gaitasuna garatzea zaila da ez dutelako nahikoa hitz egiten. Hala ere, argi dago ikasleei beren hizkuntzan eta atzerriko hizkuntzan esaldiak itzultzeko eskatzeak asko erakuts diezaiekeela bi hizkuntzen arteko antzekotasunen eta ezberdintasunei buruz.

##### **2) Ikus-entzunezko metodologia**

Ikus-entzunezko metodologiak hitz egiteko praktika handia ematen die ikasleei, eguneroko egoerako hiztegia erabiliz. Ikasleek behin eta berriz errepikatzen dituzte esaldiak, buruz ikasi arte. Metodologia hau portaeraren teoriarekin lotuta dago.

Metodologia honek, estimulu-erantzuna indartzeko ikuspegi bat erabiltzen du hizkuntzak ikasteko. Estimulu batek (irakasle batek esandakoa) ikaslearen erantzuna eragiten du (esaldi bat), eta erantzun hori indartu egiten da, adibidez, ikasleen gogobetetasuna sarituz. Prozedura hau maiz errepikatzerakoan, batzuek iradoki zuten, hizkuntza ikaskuntza emango dela. Hala ere, ikus-entzunezko hizkuntzalaritzaren osagai nagusietako bat ikasgai askotan erabiltzen da, uste baita maiz errepikatzea gakoa dela. Horregatik, Ikaskuntza arrakastatsutzat hartuta izan da urteetan zehar. Hizkuntza berria



irakasteko modurik ezagunenetako bat, PPP (*presentation, practice and production*) metodologia izan da, azalpenak testuingurura egokitu eta hauek hizkuntza erabiltzeko aukerekin bateratzean datza.

### **3) Ikuspegi komunikatiboa**

Ikuspegi komunikatiboak (CLT) honako ideia hau du ardatz: jendeak lortzen duen hizkuntza erabiltzeko aukerak izatea, eta era honetan, ikasleek hizkuntza hori berenganatzea. Komunikatzeko gogoia eta komunikatzeko helburua izatea (hizkuntzaren gramatika lantzea baino gehiago), hizkuntzaren ikaskuntza prozesua bermatzea egingo du.

Hizkuntza komunikatiboaren irakaskuntzan, ikasleek zeregin asko egiten dituzte hitz egiteko eta idazteko, eta ahal duten hizkuntza guztia erabiltzen saiatzen dira. Hizkuntza komunikatiboaren irakaskuntza edukietan bideratzen da forman baino gehiago; ikasleak arrakastaz komunikatzeko moduan jartzen du ardatza, zuzen hitz egiten edo idaztean baino. Horrela, zuzenketa ikasleak komunikatiboki hitz egiten edo idazten saiatu ondoren burutzen da.

### **4) Zereginetan oinarritutako ikaskuntza (TBL)**

